

U(R)TEKO TXOSTENA 2017



www.cear-euskadi.org

CEA(R) EUSKADI

Euskadiko Errefuxiatuen
Laguntzarako Batzordea

Nor gara?

CEAR-Euskadin errefuxiatuen, aberrigabeen eta migratzaileen eskubideak defendatzen ditugu, eta pertsona horien garapena sustatzen dugu hartzen dituzten gizarte berrian. Mende laurden bat baino gehiago eman dugu jada Euskadin kausa horren alde lan egiten.

CEARen historia 1979an hasi zen. Urte hartan pertsona batzuek, babes bila iristen zirenen egoeratik kezkatuta, Errefuxiatuei Laguntzeko Espainiako Batzordea (CEAR) sortu zuten.

Proiektu horren zati txiki bat Euskal Autonomia Erkidegoan abiarazi zen 1989an, ia bitartekorik gabe, baina ilusio handiz. 1996. urtean, CEAR-Euskadi GKE bihurtu zen, **berezko nortasun juridikoarekin**, eta CEAR erakunde kidearekin elkarlanean jardun da harrezkero.

Misioa, ikuspegia eta balioak


CEAR eta CEAR-Euskadi bi erakunde dira, baina biek helburu bera dute; misio bera, alegia.

Gure misioa nazioarteko babesa behar duten edota kanporatuak izateko arriskuan dauden errefuxiatuen, lekualdatuen, aberrigabeen eta etorkinen giza eskubideak eta garapen osoa babestea eta sustatzea da.

Langile ordainduak, bazkideak eta boluntarioak osatzen dute CEAR-Euskadiko giza taldea. Gaur egun, honakook osatzen dugu CEAR-Euskadi:

22 soldatapeko langile Bizkaian, Araban eta Gipuzkoan.

Gure langileen adin-tartea gaztea da: plantillako kide gehienak 30 urtetik 45 urtera bitartekoak dira.



U(R)TEKO TXOSTENA 2017

Gaur egun **78 boluntario** inguru ditugu hiru lurralde historikoetan banatuta, bai eta erakundeko **163 bazkide** ere. Erakundea osatzen duten langile ordainduen eta boluntarioen giza taldeak ikuspegi bera du:



CEAR-Euskadi aldaketarako eta eraldaketarako eragile gisa finkatuko da, diskriminaziorik gabeko gizarte iraunkor eta justu bat lortzeko bidean, aukera-berdintasunean eta nortasun indibidual zein kolektiboarekiko errespetuan oinarrituta. Horretarako, integrazio-, gizarte-, kultura-, lan- eta politika-prozesuak lantzen ditu, intereseko beste hainbat talderekin sarean arituz.



Hauek dira erakunde gisa ditugun **balioak**:

- Konpromiso etikoa
- Eraginkortasuna
- Efizientzia
- Zaintza
- Independentzia
- Parte-hartzea
- Gardentasuna
- Konfiantza
- Aktibismoa / inplikazioa / konpromisoa

Lana sarean

Hauek dira gurekin sarean diharduten erakundeak, plataformak, instituzioak eta gizarte-mugimenduak:

Isiltasun-zirkuluak Vitoria-Gasteizen

Boluntariotza Foroa

Ongi Etorri plataforma
Errefuxiatuak Bizkaia

Garapenerako Lankidetzarako Euskal Kontseilua

Gasteiz Irekia

Etxe-zerbitzuko
Plataforma

Boluntariotzaren Euskal Kontseilua

Hemen programa

ProtectDefenders

Euskadiko Etorकिन Laguntzarako GKE-en Koordinakundea (Harresiak Apurtuz)

Emakume eta neskatoen salerosketa eta sexu-esplotazioaren aurkako koordinazio-mahaia

Red de Castellano Araba

Tipi-Tapa

Errefuxiatuak hartzeko erakunde arteko batzordea EAPN – Euskadi

BESTEBI plataforma

Emakume Defendatzaileen Sarea

Ecosistema

Alokairuko etxebizitzan bila dabiltzanen diskriminazioaren aurkako Gasteizko plataforma

Sareak Josten / Tejiendo Redes

Ekimen Elkartea

ERABEREAN. Tratu-berdintasunerako eta diskriminaziorik ezerako sarea

Giza eskubideen defendatzaileak aldi batez berriz kokatzeko plataforma globala

ZAS. Zurrumurruren aurkako euskal sarea



Euren prozesuen protagonista

CEAR-Euskadin arreta ematen diegun pertsonen garapen osoa sustatzeko lan egiten dugu. Pertsona guztiak ahalduntzea eta norbera bere prozesuaren protagonista izatea bultzatzen dugu. Gure azken helburua da kulturen arteko elkarbizitzatik gizarte-eraldaketa sustatzea.



Emakume eta gizonen arteko ekitatea.

CEAR-Euskadin uste dugu erakundeak ez direla neutroak generokontuetan, gizartean indarrean dauden balioek, indar-egitura nagusiek eta emakumeak menperatzen dituen desberdinkerian oinarritutako sistema patriarkalak baldintzatzen baitituzte.

Horregatik, Ekitatearen Aldeko Ekintza Plan bat egin dugu, 2015-2018 Plangintza Estrategikoaren barruan, eta Emakunderen erakunde laguntzaile gisa dugun konpromisoa berriro dugu, laugarren urtez jarraian.

Metodologia

CEAR-Euskadin 2015-2018 aldirako plan estrategikoa egin dugu, erakundearen 6 xede nagusi hauek definitzen dituena:

- Pertsona etorkin/immigrante, errefuxiatu eta aberrigabeen garapen osoa.
- Beren eskubideen defentsa, nazioarteko babesa eta kulturen arteko elkarbizitzaren sustapena.
- Prozesuen bidezko kudeaketaren finkapena.
- Taldearen garapen pertsonala eta profesionala.
- Baliabide ekonomikoen kudeaketa eraginkorra eta iraunkorra.
- Ekitatearen sustapena erakundearen bizitzan eta ekintzetan.

Prozesuen bidezko kudeaketa

Gure estrategia gauzatzeko, prozesuen bidezko kudeaketa hautatu dugu: prozesu estrategikoen, babes-prozesuen eta prozesu operatiboen bidezkoa, hain zuzen.

PREMIE kudeaketa-eredua

Etengabeko hobekuntzaren aldeko apustuari jarraituz, gure barne-kudeaketa PREMIE kudeaketa-ereduan oinarrituta dago, 2009az geroztik.



2014ko ekitaldian zehar, Bizkaiko Foru Aldundiak eta Tecnalía enpresak CEAR-Euskadiren kalitate-sistemaren ikuskaritza egin zuten. Emaizak positiboak izan ziren eta, hortaz, PREMIE DIPLOMA 2019ra arte berritu dugu..

2017ko jarduera nagusiak

CEAR-Euskadik bi lan-ildo nagusi ditu:

pertsonen egoeran zuzenean **esku-hartzea** eta **eragin eta parte-hartze soziala**.

Esku-hartzea

CEAR-Euskadin, errefuxiatu, migratzaile eta aberrigabeen garapen osoa bultzatzeko lan egiten dugu. Azken finean, gizartea eraldatu nahi dugu, eskubide oro aitortu diezaion herritar orori, kulturen arteko bizikidetzara oinarri hartuta. Horretarako, **pertsona oro norberaren prozesuaren benetako protagonista** izan dadin lan egiten dugu, esku-hartzearen bidez pertsonen ahalduntzea sustatuz.

Harrera

2017an, gure inguruan nazioarteko babesaren eskatzaile eta onuradunen gizarteratzea hobetzeko konpromisoari eutsi dio CEAR-Euskadik. Estatuko harrera-sistemaren ahulezia batzuei erreparatuta, eta arreta ematen zaion kolektiboan duten eragina kontuan harturik, autonomia-, foru- eta udal-erakundeekin batera eragiteko jarduna sendotu du CEAR-Euskadik. Eusko Jaurlaritzako Giza Eskubide, Bizikidetzara eta Lankidetzaren Idazkaritza Nagusiarekin izan dugun etengabeko hartu-emanaren bidez, Auzolana programari esker harrera-plazaren kopurua handitu egin da pixkanaka, etxebizitza publikoak lagatzearen bitartez. Halaber, laguntza-mekanismoen eta sareen sorrera sustatu da CEAR-Euskadi dagoen udalerrietan.

Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Sailarekiko koordinazioari esker, Goihabe programaren bidez lagundu ditugu askotariko arrazoiengatik estatuko harrera-sistematik kanpo geratzen ziren eta ohiz kanpoko laguntzak behar zituzten nazioarteko babesaren eskatzaileen ibilbideak. Gipuzkoako eta Arabako sail homologoekin ere lanean ari gara, esperientzia arrakastatsu hori hedatzeko.

Ahalegin koordinatu horri esker, 136 harrera-plaza izatera iritsi gara, eta 2017an 351 pertsona hartu ditugu guztira, 168 emakume eta 183 gizon. Izan ere, Euskadin lehen harrerako zerbitzuak 881 pertsona (437 gizon eta 344 emakume) estatuko harrera-sisteman sartzeko eskaerak kudeatu zituen ur-

tean zehar. Hortik dator hurrengo urteko lehen hiruhilekoan 37 plaza gehiago sortzeko konpromisoa.

Erronka hau dugu 2018rako: harrerako aterpetxe bat sortzea estatuko harrera-sisteman sartu bitartean laguntza behar duten eskatzaileentzat.

Gizarteratzea

2017an gure bulegoetara jo duten 1.619 pertsona (1.060 gizon eta 559 emakume) hartu ditugu eta erakundeetan ibilbidea hasi dute.

Adinaren arabera banaketari dagokionez, 26 urtetik 35 urtera bitarteko tartean daudenak % 38 dira; 36 urtetik 45 urtera bitartekoak, berriz, % 23; eta 18 urtetik 25 urtera bitartekoak ere % 23.

Jatorrizko herrialdeei erreparatuta, nagusi dira Venezuela (% 37) eta Maroko (% 14).

Prestakuntzari dagokionez, arreta jaso duten pertsonen % 26k lehen ikasketak egin dituzte. Derrigorrezkoa ez den bigarren hezkuntza egindakoak % 26 dira, unibertsitateko ikasketak egindakoak % 18, eta derrigorrezko bigarren hezkuntza egindakoak, berriz, % 15.

Azpimarratu behar da azken urte honetan handitu egin dela atzerritarren ibilbidetik sartzen diren pertsonen eskaeren kopurua. Horren ondorioz, 190 pertsona ditugu itxarote-zerrendan. Era berean, nabarmendu behar da profil horren barruan gora egin dutela ahultzat jotako profilek:

- Beste autonomia-erkidego batzuetatik etorritako 18-23 urteko gazteak, Bizkaiko Foru Aldundiaren emantzipazio-programetan sartzeko aukerarik ez dutenak.
- Baliabide ekonomikorik, bizitzeko tokirik eta laguntza-sarerik gabeko familiak.
- Etxerik gabe eta egoera juridiko-administratibo irregularrean dauden pertsonak.

CONECTATE NER

2017an, CEAR-Euskadik eta Ner Group elkarteak errefuxiatuak laneratzeko programa pilotu bat bultzatu zuten.

Harreman-estilo berri bat sortzeko asmoz sortu zuten Conéctate NER (*Nuevo Estilo de Relaciones*) programa, jendea "konektatu" nahian, hain zuzen: enpresa-munduko jendea, ekintzaileak, unibertsitateko ikasleak eta gizarte zibila, **CEAR-Euskadik** artatzen dituen errefuxiatu, migratzaile eta aberrigabeekin. Horrenbestez, helburua da programan parte hartzen duten eragileek gizartearekiko duten konpromisoa gauzatzea, asiloa eskatzen dutenen errealitatea zuzen-zuzenean ezagututa. Gurera etorritakoei harrera ona egiten eta gizartean nahiz lan-munduan sartzen laguntzea da azken xedea; horixe lortu nahi da.

Hainbat eragile inplikatu dira proiektuan: Ner Group elkarteko langileak, Mondragon Team Academy-ko LEINN graduako ikasleak, Reinsercióna enplegu-atariko langileak, Bolunta agentzia, errefuxiatuak, CEAR-Euskadi elkarteko lanerako orientabide-zerbitzuko kideak, eta norberaren konturako langileak, besteren konturakoak, eta bestelakoak.



Programa Hemen:

HEMEN programaren bidez, **hamar urtez** jardun ostean, Bizkaiko Foru Aldundiaren adingabeen babes-zentroetatik irtendako gazte atzerritarrei bidelaguntza ematen eta integrazio-ibilbideak garatzen jarraitzen dugu. Berariaz, babes-zentroetatik irten ondoren emantzipazio-programetan sartzeko aukerarik izan ez dutenei eta egoera ahulean eta babesik gabe daudenei laguntzen diegu.

2017an 174 gaztek (guztiak gizonak) jaso zuten gure arreta. Bidaidetik gabeko adingabeen etorrera nabarmen handitu denez, azken urtean adingabeentzako zazpi etxe berri zabaldu dira Bizkaiko Lurralde Historikoan, eta itxarote-zerrenda sistema bat ezarri behar izan dugu.

Azpimarratu behar da gazteen adimen-osasuna zaintzeko baliabideak antolatzeko premia dagoela, prebentzioa eta arreta osoa aintzat hartuta. Hemen programan ikusten dugu gero eta ohikoagoak direla depresio-prozesuak gure lanaren xede diren gazteen artean, hiru ezaugarri hauek bateratzearen ondorioz: migratzaile izatea, nerabe izatea eta familian eta/edo gizartean erreferentzia egonkorrik ez izatea. Horren guztiaren ondorioz, hezitzailearen figura erreferente bakarra da, gazteak gizarte-bazterketa prozesuetan behin eta berriro erortzen dira, eta ez dira emantzipatzen.

Arreta juridikoari dagokionez, atzerritarrei buruzko 20 espediente izapidetu dira gai hauei buruz:

- Bizileku-baimenak ohiz kanpoko egoerengatik.
- Bizileku-baimenen berritzeak ohiz kanpoko egoerengatik.
- Bizileku-baimenenak aldatzea, bizileku- eta lan-baimenak izan daitezen.
- Herritartasuna

Abokatuaren bidez, **20 administrazioarekiko auzi-errekurtso** jarri eta zuzendu dizkiegu Bilboko administrazioarekiko auzien epaitegiei.

Arreta juridikoa emateko zerbitzua:

Lantalde juridikoak lagundutako nazioarteko babes-eskaerak 662 izan dira; alegia, iazkoak halako bi.

Probintzien arabera:

- 431 Bilbon (% 65,11)
- 90 Gasteizen (% 13,6)
- 77 Donostian (% 11,63)
- 64 baliogabetu dira lekualdatzearen ondorioz (% 9,67)

Sexuaren arabera: % 45,77 emakumeak dira eta % 54,23 gizonak.

Herritartasunaren arabera:

Honako 3 herrialde hauetakoak dira % 60 inguru:

- % 40,33 Venezuelakoak
- % 9,52 Kolonbiakoak
- % 8,16 Ukrainakoak

Gainerakoak 39 herrialdeetakoak dira.

Atzeritartasuna (Aholku Sarea)

Gasteizen gauzatutako atzeritartasun-programaren barruan, 853 kontsulta egin dituzte 670 pertsonak (344 gizon eta 326 emakume), atzeritarrei buruzko legediarekin lotutako gaiez, batez ere honako hauek direla eta:

- Bizileku-baimenak ohiz kanpoko egoerengatik.
- Familiak berrelkartzea.
- Bizileku- eta lan-baimenak eta haien berritzeak.
- EBko bizileku-txartelak.
- Herritartasuna.
- Administrazio-errekurtsoak

Arreta psikologikoa

2017an, arreta psikologikoa emateko zerbitzuak, 3 pertsonak osatutako lantaldearen bidez, asiloa eskatu duten edo asilo-egoeran dauden **213 pertsonari** eman die arreta, bai eta atzerritarren kolektiboko 14 pertsonari ere.

Aldi horretan egin diren jardueren artean, hiru azpimarratuko ditugu.

Alde batetik, talde-tailerrak egin dira bi ildo bereizi hauetan:


Osasun integralerako tailerrak: Tailer horietan taldea osatzen duten pertsonen indargune eta beharren autodiagnostiko txiki bat egiten da, osasunaren hainbat dimentsio aintzat hartuta. Horrekin batera, bizitzen ari diren bizi-prozesuei buruzko informazioa ematen zaie (normalizazioari eta prebentzioari begira), bai eta agerian jarritako beharrei erantzuteko egon daitezkeen tokiko baliabideei buruzkoa ere. Azkenik, adierazten zaie zertarako balio duten arreta psikologikorako zerbitzuek, eta zer kasutan erabil daitezkeen (batez ere, zerbitzu horiei buruzko ezjakintasuna, beldurrak eta/edo aurreiritziak lantzeko, eta aurkezpenaren ostean arreta psikologikoa baliabide eskuragarriagoa izateko).

Loaren higieneari buruzko tailerrak: Tailer horietan helburua da loaren garrantziari buruzko kontzientzia sortzea, eta loa hobetzeko aukerez ohartaraztea, bitarteko hauek baliatuta: loaren funtsezko alderdiei buruzko informazioa, norberaren lo egiteko moduen eta "ondo lo egiteko" baliabideen behaketa, eta kontrol mentaleko zenbait teknika erabiltzea eta arreta oraingo unean jartzea, lo egitera joateko eta jaikitzeke unek hobetzen laguntzeko.

Bi kasuetan **parte hartzeko tailerrak** dira, eta aipatu helburuak lantzeaz gainera, taldearen kohesioa, konfiantza eta segurtasuna sustatzen dira, bai eta pertsonen arteko harremanak ere.

Bestalde, 2017an abian jarri da **sare psikosolidario bat Bizkaian**. Sare horren bitartez, psikologiaren alorreko profesionalek, borondatez eta solidaritatez, arreta psikologikoa ematen diete kolektiboko pertsoneri, itzarote-zerrenda sortzen den unean.

Amaitzeko, psikologia-arloko **gizarte-berrikuntzaren ildoan**, eta Kula Sarearen babesean, parte hartzeko ikerketa-ekintza bat garatu da praktikaldiko langileekin, errefuxiatuta dauden pertsonekin eta lurraldeko gizarte-eragileekin, osasun integralaren mapa bat sortu duena. Mapa horretan, osasunean eragiten duten hainbat alderdi ageri dira, bai eta kolektiboan gai horri buruz sor daitezkeen premiei erantzuteko eskura dauden baliabideak ere. Kula Sarea lantalde autonomo eta proaktiboa da, **Errefuxiatuei Laguntzeko Euskadiko Batzordeko** boluntarioek eta profesionalek osatua. Sareak pertsonen indarra du abiapuntu, eta guztiok osatzen dugun komunitatearen eraikuntzan parte hartzea sustatzen du.



Errefuxiatuen harrera, gizarteratzea eta ongizatea hobetzea du helburu, gizakiari buruzko ikuspegi holistikoa aintzathartuta; horren emaitza dira ikusmolde berritzaileak, hala nola osasun integrala eta guztien onura (commons, procomún...). Horrenbestez, errefuxiatuei laguntzen zaie beren beharrei erantzuten, behar horiek beste eragile aktibo bat bezala integratuta, norberaren ongizatea eta lurraldearen aberastasuna sortzeko prozesuetan.

Gizarte-eragina eta parte-hartzea

CEAR-Euskadiren ikuspegitik, eragina da ekintzak eta prozesuak abian jartzea, **prestakuntza-, instituzio-, politika- eta gizarte-egituren eraldaketa** bultzatzea, horiek baitira errefuxiatuek beren eskubideak erabat lortzeko oztopoak. Laburbilduz, migrazioei lotuta eta giza eskubideen zein asilo-eskubidearen defentsan lan egiten dugu.

Honako hauek izan dira 2017an egin ditugun ekintza nagusiak:

Giza eskubideen defendatzaileak babesteko euskal programa

Giza eskubideak behatzeko misioa Hondurasen

2017an Giza Eskubideak Behatzeko Euskal Ordezkaritza, Eusko Jaurlaritzako eta Eusko Legebiltzarreko ordezkariak eta EAEko gizarte zibilekoak (Aldarte, Zumalabe fundazioa, Mundubat fundazioa eta CEAR-Euskadi) biltzen dituen, Hondurasera joan zen, giza eskubideen defendatzaileak aldi batez babesteko euskal programaren esparruan bisita egitera.

2016ko edizioan, programak Euskadin hartu zituen Hondurasko giza eskubideen bi defendatzaile, herrialde hartako bi erakundetatik etorriak: COFADEH (Hondurasko Desagertutako Atxilotuen Senideen Batzordea) eta INHSCO (Hondurasko Zerbitzu Komunitarioen Institutu Ekumenikoa).

Egonaldian bilerak egin zituzten gizarte-mugimenduekin eta gobernuz kanpoko erakundeekin, nazioarteko erakundeekin eta Hondurasko instituzioekin, eta Ordezkaritzak egiaztatu zuen Erdialdeko Amerikako herrialde horretan giza eskubideak defendatzen dituzten pertsona eta kolektiboak segurtasun-egoera larrian daudela.

Guatemalatik, Kolonbiatik eta Mendebaldeko Sahararik etorritako giza eskubideen hiru defendatzaileei harrera

2017an, giza eskubideen defentsan lan egiteagatik arrisku-egoeran zeuden hiru pertsona hauek etorri ziren Euskadira, babesa emateko euskal programaren esparruan: **Aura Lolita Chávez Ixcaquic**, Guatemalako herri indigenen defendatzailea eta K'iche' Herrien Kontseiluko ordezkaria, Feminismo Komunitarioko Antzinako Sendatzaileen Sareko kide eta prestatzailea, Europako Parlamentuak kontzientzia-askatasunari ematen dion Sájarov saria jasotzeko finalisten artean egon zen iaz; **Laila Leili**, Marokoko Estatuak egindako Giza Eskubideen Urraketa Larrien Biktimen Elkarte Sahararreko kidea, 1999an marokoar okupazioaren aurkako lehen Intifadan parte hartu zuen, bai eta 2005eko Intifadan eta Gdeim Izik-eko 2010eko protesta-kanpamenduen antolaketan ere, eta horregatik Marokok espetxeratu eta torturatu du behin eta berriro; eta **Richar Sierra Alquerque**, Senú herriko indigena (Kolonbia), Ama Lurraren Pedagogian lizentziaduna Antiokiako Unibertsitatean,



Antiokiako Erakunde Indigenaren (OIA) Lurraldea eta Ingurumena programaren koordinatzailea, 2016ko abenduan OIAren X. kongresuan Harreman Politikoen eta Justizia Propioaren sailburu izateko hautatu zuten.

Oxfamen, Saharako Errepublika Arabiar Demokratikoaren lagunen Arabako elkartearen eta Mugarik Gaberen eskutik, hiru defendatzaileen agenda politikoa eta prestakuntzakoa oso bizia izan da, bai

Euskadin bai Espainiako estatuan bai Europan. Horri esker, nazioarteko laguntza-sareak zabaldu eta sendotu dituzte, norberaren herrialdean giza eskubideak defendatzeko jardunera itzultzeko, segurtasun eta babes handiagoz.

Defendatzaileak babestea

Azaroaren 9 eta 10erako, Bizkaia Jaureriko Abokatuen Bazkun Ohoretsuarekin lankidetzan, "Defendatzaileak babesten" biltzarra antolatu genuen, eta 150 pertsonak parte hartu zuten. Topaketa horretan gai hauek jorratu genituen, besteak beste: giza-eskubideak defendatzen diharduten pertsonak babesteko zer-nolako erantzukizuna duen nazioarteko komunitateak, zer arriskuri egin behar izaten dieten aurre, babes moduan zer mekanismo eta premia dituzten, zer estrategia komunitario dauden eta aldi baterako babes-programek zer potentzialtasun dituzten. Hainbat erakundek (Nazioarteko Bake Brigadak, Defenred, Giza Eskubideak defendatzen dituzten Emakumeen Erdialdeko Amerikako Ekimena, FrontLine Defenders, Arriskuan dauden Abokatuen Nazioarteko Behatokia) ikaskuntzak eta esperientziak partekatu zituzten, eta Nazio Batuen Errelatore Bereziak giza eskubideen defendatzaileei buruzko aurkezpen bat egin zuen.



Bideoforuma: *La luz de aquella tierra* dokumentala

Urriaren 7an bideoforum bat egin genuen Getxoko Kultur Aretoan, Oroitzapen Partekatuak proiektuaren esparruan. Helburua zen Gerra Zibiletik eta frankismotik ihes egin behar izan zutenen erbesteratze-esperientziak eta gaur egun Euskadira babes bila datozen pertsonen esperientziak lotzea. Jarduera horretan Getxoko Immigrazio eta Kulturartekotasun Arloaren laguntza izan genuen, eta Javier Larrauriren dokumental bat proiektatu zen:



La luz de aquella tierra. Film horrek lehen pertsonan kontatzen ditu Mexikon erbesteratuta bizi izan ziren emakume errepublikarren esperientziak. Proiekzioaren ostean, Euskadin errefuxiatuta bizi den Kongoko emakume batekin solasaldia egin genuen.

Bideoa: Erbeste izan ginen. Izan gaitezen babes

Erbeste izan ginen. Izan gaitezen babes bideoa argitaratu genuen. Oroitzapen partekatuen prozesuko mezu nagusiak biltzen ditu bideoak, eta gure herrialdera babes bila datozen pertsonak gurean hartzeko erantzukizuna gogorarazten digu.

Memoria historikoari buruzko proiektuaren esparruan, *Oroitzapen Partekatuak* ikerketa argitaratu zen. Ikerlan horrek Gerra Zibilean eta frankismo garaian erbesteratutako pertsonen eta gaur egun Euskadira babes bila datozen pertsonen esperientzien arteko analogiak aztertzen ditu. Azaroaren 16an Bilbon egin zen erbesteratze-esperientziari buruzko ikerketa-prozesuaren emaitzak itzultzeko topaketa. Ekitaldi horretan elkarrizketan jardun genuen prozesuan parte hartutako pertsona eta erakundeekin, eta itxiera kolektibo bat egiteko balio izan zigen.

Sexu-esplotaziorako salerosketak eta asilo-eskubidea

Maiatzean "Sexu-esplotaziorako trafikoa muga-politiken esparruan" jardunaldiak egin genituen Deustuko Unibertsitatean. Jardunaldi horietan ikerketa-txosten hau aurkeztu genuen: *Refugiadas: La Trata con Fines de explotación sexual en el contexto de cierre y militarización de fronteras*. Halaber, Itziar Gandariasek bildutako Saharaz Hegoaldeko



emakumeen kontaketak ere aurkeztu genituen: Bizirik nago: Saharaz Hegoaldeko Afrikatik etorritako emakumeen erresistentzia-kartografiak.

Jardunaldiek eta txostenak inpaktu handia izan zuten hedabideetan, eta aste berean bilera bat egin genuen gizarte-erakundeekin, feministekin eta migratu duten emakumeekin, aurten aurkeztu dugun sexu-esplotaziorako salerosketari eta asilo-eskubideari buruzko komunikazio-kanpaina prestatzeko giltzarrizko mezuak lantzeari begira. Azken helburua da sexu-esplotaziorako salerosketa genero-arrazoiengatiko jazarpen mota gisa ikusaraztea, eta biktima izan diren emakumeak bizirik iraun duten pertsonak direla agerian jartzea.

Komunikazioa

Urtero bezala, ekainaren 20a Errefuxiatuen Nazioarteko Eguna dela-eta, CEAR-Euskadik hedabideen aurrean aurkeztu zuen urteroko txostena, errefuxiatuek Espainian eta European bizi duten egoerari buruzkoa.

Euskal Autonomia Erkidegoaren kasuan, azpimarratu behar da, nazioarteko babes-eskaeren kopurua 2015ekoa halako hiru izan arren (163 eskaera 2015ean eta 500 eskaera 2016an) kopuru hori oso txikia dela oraindik ere, krisi humanitario honen dimentsioak kontuan hartuta; izan ere, Euskadiko biztanleen % 0,02 dira. EAEn 2016an egindako 500 asilo-eskaeretatik 277 izan ziren CEAR-Euskadik lagundutakoak. Erakundearen laguntza jasotako pertsonen artean, Venezuelatik etorritakoak gailendu ziren (74), eta haien ondoren Nigeriakoak (40) eta Kolonbiakoak (36).



La Bilbao Refugio lasterketa

600 pertsonak izena eman zuten errefuxiatuen aldeko lasterketa solidarioaren lehen edizioan. Lasterketaren helburua izan zen Óscar Pasarín korrikalariari azken kilometroetan laguntzea,

U(R)TEKO TXOSTENA 2017

errefuxiatuen egoera ikusarazteko Bilbon 8 egunetan 1.000 km korrika egiteko ekimenean. Jardunaldi ludiko eta erreibindikatzailea izan zen: ekainaren 20ko astean kalera irten ginen argi eta garbi adierazteko babesa ematen duten benetako hiri eta udalerrri izan nahi dugula.

Topaketa Gernikan

CEAR-Euskadik parte hartu zuen Ongi Etorri Errefuxiatuak plataformak 2017ko apirilean Gernikan egindako topaketan. Erakundeak hartutako errefuxiatuek parte hartu zuten topaketa horretan, eta erakundeak berak ere txostengile gisa parte hartu zuen harrerari, antikapitalismoari eta feminismoari buruzko tailer eta hitzaldietan.

SOS Arrazakeriarekin manifestazioan parte hartzea

CEAR-Euskadik, urtero bezala, parte hartu zuen SOS Arrazakeria Bizkaiak martxoaren 21erako, Arraza Diskriminazioaren aurkako Nazioarteko Egunerako, antolatutako manifestazioan. Gizarte-partaidetza taldeak eta erakundeko boluntarioek urtero lideratzen dute erakundearen parte-hartzea pertsonen eskubideak errespetatzearen aldeko martxa horretan.





La Zanja antzezlanaren bira eta obra berri bat sortzea

Caminamos para Crecer antzerki-taldea, CEAR-Euskadiko gizarte-partaidetza lantaldeetik sortua, EAEko eta estatuko hainbat bazterretan ibili da, *La Zanja* antzezlanaren ematen. Horrez gainera, 2017an proiektu berri bat prestatzen hasi ziren, 2018an antzezteko, eta *Alas Rotas* da errefuxiatuak ardatz dituen bigarren antzezlan horren izenburua.

Gizarte-partaidetza topaketa emakume migratzaileen erakundeekin

Urtero bezala, abenduan CEAR-Euskadiko gizarte-partaidetza lantaldeak erakundearen urteroko partaidetza-jardunaldiak lideratu zituen. Jardunaldi horietan, erakundearen parte hartzen dugunok hausnarke-ta kolektibo bat egin genuen, guretzat aktibismoa zer den aztertzeko, zenbait talde-dinamikaren bitartez.

Arratsaldean, emakume migratzaileen zenbait kolektiborekin mahai-inguru bat egin genuen, eta gizarte-eraldaketan eta aktibismoan parte hartzeari buruz zuten ikuspegia eman ziguten. Erakunde hauek parte hartu zuten: Emakumeak Aniztasunean, Bidaya, Munduko Emakumeak eta Babelgo Dorrea.



Kulturen arteko bizikidetza

2017an, CEAR-Euskadiko kulturen arteko bizikidetza lantaldeak lau jarduera hauek hartu ditu lanaren ardatz:

Jantzideiak liburuaren argitalpena.

CEAR-Euskadik liburu irudiztatu hau argitaratu zuen hiyab eta beste jantzi identitario batzuen inposizioari edo debekuari buruz (palestinarren zapiak, banda latinoak, melfak...). Liburua ausarta, lotsagabea, dibulgaziozkoa eta batez ere gazteentzat egina da, eta gai honi buruz hausnartzea proposatzen du: belo islamikoa, burkinia edo beste jantzi batzuk erabiltzea izan daiteke emakumeek, oro har, eta emakume musulmandarrek, berriaz, nola pentsatu eta nola jantzi erabakitzeo eskubidea izateari buruzko errebindikazioa.

Animazio-bideoa: Ez utzi endredatzen.

2017an, martxoaren 21ean Arraza Diskriminazioaren aurkako Nazioarteko Eguna dela-eta, bigarren animazio-bideoa atera zuen CEAR-Euskadik: Ez utzi endredatzen. Bideo horretan errefuxiatuak protagonista dira, eta jarraipena ematen zaio 2012an hasitako zurrumurruen aurkako kanpainari.



Kanpaina birala: Kazetariak xenofobiaren aurka

Euskadiko 27 kazetari protagonista dituzten 27 teaser edo ikus-entzunezko material laburrak argitaratu ziren. Horrenbestez, 27 letren ordenamendu alfabetikoari jarraituz, 27 aholku eman zitzaizkien herritarrei, aurreiritzietan eta zurrumuru arrazista eta xenofoboetan endredatzen ez uzteko. Hedapen biral horren osagarri, izen bera duen liburuaren bigarren edizioa banatu zen: *Kazetariak xenofobiaren aurka*. Liburu hori iritzi



publikoan korrante xenofoborik hedatuko ez duen kazetaritza-lanbidean jarduteko gida da.

Gizarte-dinamizazio proiektua: Alboko familia (Bizilagunak Araba).

Araba guztian 1.000 pertsonatik gora igandeko kulturarteko bazkarian elkartuta. Egun horretan, hemengo eta hango pertsonak, gaur egun elkarrekin bizi direnak, mahaian biltzen dira, anfitrioi edo gonbidatu gisa, asteburuko bazkari bat partekatzeko, elkar ezagutzeko, lagunak egiteko, eta azken finean, zurrumurru eta aurreiritzi xenofoboek altxatutako harresia eraisteko. Ezin ditugu zabaldu Europako mugak, bai ordea gure etxeak.



Kontu garbiak

Urtero bezala, aurten ere CEAR-Euskadik bere kontabilitateari kontu-ikuskaritza egin diezaiotela eskatu du, bere borondatez; lan hori **PKF ATTEST Servicios Empresariales SL** enpresak egin du, eta aldekoa izan da. Kontuek zehatz-mehatz adierazten dute nolakoa zen CEAR-Euskadiren egoera 2017ko abenduaren 31n, ondasunei eta finantzei dagokienez.

CEAR-EUSKADI ELKARTEA (EUSKADIKO ERREFUXIATUEN LAGUNTZARAKO BATZORDEA)		
BALANTZE LABURTUAK, 2017KO ETA 2016KO ABENDUAREN 31N		
AKTIBOA	2017	2016
AKTIBO EZ-ZIRKULATZAILEA:		
Aktibo ibilgetu immateriala	5.335	3.388
Aktibo ibilgetu materiala	3.097	4.292
Epe luzerako finantza-inbertsioak	1.129	1.129
Aktibo ez-zirkulatzailea, guztira	9.561	8.809
AKTIBO ZIRKULATZAILEA:		
Izakinak	1.363	1.929
Erabiltzaileak eta jardueraren berezko zordunak	30.100	19.500
Merkataritza-zordunak eta kobratzeko beste kontu batzuk		
Beste zordun batzuk	742.392	529.218
Epe laburrerako finantza-inbertsioak	4.327	919
Eskudirua eta likido baliokideak	311.769	196.516
Aktibo zirkulatzailea, guztira	1.089.951	748.082
AKTIBOA, GUZTIRA	1.099.512	756.891

CEAR-EUSKADI ELKARTEA (EUSKADIKO ERREFUXIATUEN LAGUNTZARAKO BATZORDEA)
BALANTZE LABURTUAK, 2017KO ETA 2016KO ABENDUAREN 31N


ONDARE GARBIA ETA PASIBOA	2017	2016
ONDARE GARBIA:		
Elkartearen funtsak		
Gizarte-funtsa	213.418	213.418
Aurreko ekitaldietako soberakin negatiboak	(47.148)	(29.045)
Ekitaldiko soberakinak	214	(18.103)
Ondare garbia, guztira	166.484	166.270
PASIBO EZ-ZIRKULATZAILEA:		
Epe luzerako zorrak		
Epe luzerako beste zor batzuk	178.834	124.970
Pasibo ez-zirkulatzaila, guztira	178.834	124.970
PASIBO ZIRKULATZAILEA:		
Epe laburrerako zorrak		
Epe laburrerako beste zor batzuk	622.900	390.728
Merkataritza-hartzekodunak eta ordaintzeko beste kontu batzuk		
Beste hartzekodun batzuk	131.294	74.923
Pasibo zirkulatzaila, guztira	754.194	465.651
ONDARE GARBIA ETA PASIBOA, GUZTIRA	1.099.512	756.891

U(R)TEKO TXOSTENA 2017

CEAR-EUSKADI ELKARTEA (EUSKADIKO ERREFUXIATUEN LAGUNTZARAKO BATZORDEA) URTEKO EKITALDI AMAITUEN EMAITZA-KONTU LABURTUAK 2017KO ETA 2016KO ABENDUAREN 31N

	2017	2016
EKITALDIKO SOBERAKINA		
Elkartearen jardueraren diru-sarrerak		
Bazkide-kuotak	24.906	18.845
Ekitaldiko soberakinari lotutako diru-laguntzak, dohaintzak eta legatuak	775.962	733.659
	800.868	752.504
Salmentak eta merkataritza-jardueraren beste diru-sarrera batzuk	224.251	191.600
Laguntza-gastuak eta beste batzuk		
Laguntza ekonomikoak	(83.770)	(94.721)
Produktu bukatuen eta fabrikazioan daudenen izakinen aldaketa	(566)	(2.951)
Hornidurak		
Jardueraren beste diru-sarrera batzuk	12.614	9.365
Pertsonal-gastuak	(640.157)	(604.646)
Jardueraren beste gastu batzuk	(310.346)	(270.839)
Aktibo ibilgetuaren amortizazioa	(2.685)	(1.728)
Beste emaitza batzuk	5	3.313
JARDUERAREN SOBERAKINA	214	(18.103)
ZERGA AURREKO SOBERAKINA	214	(18.103)
Mozkinen gaineko zergak		
Ekitaldiko soberakinean aitortutako ondare garbiaren aldaketa	214	(18.103)
EMAITZA GUZTIRA, ONDARE GARBIAREN ALDAKETA EKITALDIAN	214	(18.103)


DIRU-SARRERAK



- Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia
- Bazkide-kuotak, dohaintzak, ekitaldiak
- Arabako Foru Aldundia
- Bizkaiko Foru Aldundia
- Fundazio pribatuak
- Eusko Jaurlaritza
- Beste erakunde publiko batzuk
- Beste batzuk

GASTUAK

- Eragin eta parte-hartze soziala
- Barne-kudeaketa
- Esku-hartzea



Finantzatzaileak



Laguntzaileak



Ilustre Colegio de la
Abogacía de Bizkaia
Bizkaiko Abokatuen
Elkargo Ohoretsua



ASTIBERRI



ST. GEORGE'S
ENGLISH ACADEMY



Servicios Sociales
Integrados
GRUPO

**Asociación
socio-cultural de
mujeres Madalen**



[Eskaneatu kodea zure mugikorrarekin eta egin CEAR-Euskadiko bazkide]



Lagundu errefuxiatuen eskubideak defendatzen

[CEAR Euskadi]

Bilbo

Kristo kalea 9 B, 5. solairua. 48007 Bilbo
Tel.: 94 424 88 44

Vitoria-Gasteiz

Aldabe kalea 7. 01012 - Vitoria - Gasteiz
Tel.: 945 266 805

Donostia

Caracasko Errege Konpainia Gipuzkoarraren kalea 1. 20011 - Donostia

www.pear-euskadi.org

Jarrai gaitzazu sare sozialetan:
www.facebook.com/CEAReuskadi
www.twitter.com/CEAReuskadi
www.youtube.com/CEAReuskadi

CEA(R) EUSKADI

Euskadiko Errefuxiatuen
Laguntzarako Batzordea

